

Nafarkaria

● ostirala ● 2001eko apirilaren 6a

Egunkaria

Gehigarri honetan




Doneztebe • Errekak, Malerrekako kirol elkarte bakarrak, 25 urte bete ditu


Gontzal Agote • «Nabarra' aldizkariak Nafarroaren alderdi euskaldunaren ispilu izan nahi du»

Iruñerriko euskara?

Dagoeneko, hamar bat urte igaro dira Iruñerriko azken euskalduna hil zenetik. Egun milaka euskaldun daude Iruñerrian eta gaztetxoenen artean matrikulazioen herenak D eredukoak dira. Euskararen kalitatea, baina, ezbaian dago, eta anitzek uste du eskoletako hizkera estandarra nafarrera kutsuz jantzi behar litzatekeela. Bertako euskara zena eredutzat hartzea ongi legoke, baina kontua da inoiz ez dela Iruñerrian euskara homogeneousorik izan.



esan / erran
beste / bertze
izango / izanen
niretzat / niretako



Lizarra • Estellerria euskararekin

Eskualdeko 46 elkartek
euskararen eskubideak
bermatzeko xedea duen
manifestua sinatu berri dute

**Euskara eta euskaldunon aurka egiten ari
diren erasoak ikusirik, Estellerriko hainbat
esparrutako 46 elkartek atxikimendua
erakutsi berri diote nafar guztion hizkuntza
eskubideak bermatzeko xedea duen
manifestuari.**



Estellerriko elkarteetako ordezkariak manifestuaren berri eman zutenean, San Pedro eliza ondoan. • KRISTINA BERASAIN

NAFARROAKO GOBERNUAK administrazio publikoetan euskararen inguruan berriki aurrera atera eta dagoeneko indarrean den 372/2000 Foru Dekretua dela eta, Lizarrako Euskara Batzordeak herri ekimen bat martxan jartzea erabaki zuen urte hasieran. «Herriarantz eginiko eskaera ugarietan dauka hastapena gaur hemen sinatu dugun atxikimendu manifestuak», azaldu digu Sonia Garzia Euskara Batzordeko kideak. «Gure kezka herri osoan zabaltzearen, Estellerriko talde anitzetara jo dugu, eta erantzuna paregabea izan da, bai jasotako atxikimendu kopuruari dagokionez, baita taldeen aniztasunari dagokionez ere», gaineratu du.

Martxoaren 27an bildu ziren hainbat esparrutako ordezkariak San Pedro elizaren babespean. Bertan, manifestuarekiko atxikimendua sinatu zuten 46 elkarten

ordezkariak, eta ozenki irakurri zuten arestian aipatu euskararen aldeko manifestua. Halaber, egun horretan bertan, maiatzaren 25 bitartera irekita egonen den sinadura bilketarako epea zabaldu zuten. Sinadura orriak ikastola, eskalategi eta elkarteetatik pasako dira, aurrerago Lizarrako Udalean aurkezteko.

Sinatzaileen aburuz, Nafarroako Gobernuaren dekretuak atzerapauso nabarmena da euskararen garapenerako, eta berez oztopo den Euskararen Legearen izaera sakontzera dator. Manifestuan irakur daitekeenez, «honetako jarduerak, euskararen kontrakoak izateaz gain, nafar gizartearen zati garrantzitsu baten kontrakoak ere badira; zeren eta, euskararen aldeko hautua egin nahi izan dutenek gaztelania hautatu dutenek edukitzen ez dituzten traba, eragozpen eta debekuak topa-

tzen dituzte legearen aldetik bere aukera gauzatzeko garaian».

Azkenik, euskararen aldeko apustua egiten duten elkarteok haxe adierazi dute: «Euskara bultzatu eta normaldu beharko litzateke, nafar guztion altxorra eta kultur aberastasuna baita. Halaber, justiziaren oinarriak funtsezkoena berdintasuna dela onarturik, euskaldun nahiz erdaldun, herritar guztion hizkuntza eskubideak zein aukerak parekatuko lituzkeen legeak behar ditugu».

Sinatzaileen artean mota gu-

zietako taldeak dira: Kilarrak Antzerki Tailerra; Lizarrako Emakumeen Asanblada; AEK; Flitter; Gure Geroa Elkartea; Badminton Taldea; Lizarrako Gaitariak; Gazte Asanblada; Larraiza dantzari taldea; Mendizale Elkartea; Gure Hizkuntza Elkartea; Elgacena literatur aldizkaria; Ereintza Abesbatza; La Bota; Oncineda Saskibalo Taldea; Espeleologia taldea; Lokiz argazki taldea; Peñaguda Elkartea; Irujo Etxea Elkartea...

→ Kristina Berasain

Leitza

Mahai inguruan eserita euskararen alde

AZKEN ASTE HAUETAN EUSKARAREN aldeko zenbait ekitaldi egin dira Leitzaan, eta, ahalegin horretan jarraitu nahian, gaur bertan beste ekitaldi bat prest dute Euskararen Aldeko Batzordeetako ordezkariak: hainbat arlotan lanean ari diren hogen bat lagun bilduko dira Leitzaoko zineman iluntzeko 19:30ean, denak mahai inguruan eserita, euskararen inguruan solastatzeko.

Sortu berri den batzorde horretako kide Mikel Ilarregik azaldu duenez, gaur hiru galdera-proposamen eginen dizkiete oholza gainera igotzen diren lagunei: orain arte euskararen inguruan nolako jarrera izan den norberaren kasuan; euskaraz bizitzea posible ote den; eta, azkenik, mezu bat bota beharko dute euskararen alde.

Bertan biltzen diren ikusentzuleek ere beren iritzia emateko aukera izanen dute; azken batean, Ilarregik dioenez, «herri euskalduna protagonista izatea da» mahai inguru honen helburua, garbi baitute antolatzaileek «ezinezkoa» izanen dela gaian sakontzea, «baina mezu baikorra helaraztekoa modua, behintzat, izanen da». Ahalegin horretan honako hauek arituko dira, besteak beste: Gabriel Saralegi, Javier Eskubi, Pontxito Iurtia, Kepa Mateorena, Imanol Arozena, Juani Barriola, Jaione Astibia, Tomas Azpiroz, Gloria Iurtia, Cristina Urrutia, Demetrio Salbarredi, Mamen Ugarte, Juan Bautista Irazoki, Unai Zabaleta, Iñaki Perurena...

→ Eli Belauntzarán

ziutatea

ARITZ AGIRRE



Bizitza aurrera doan heinean, atzean gelditzen dira zaborrera bota beharreko minutuak. Zaramak bereganatzen ditu egunean aprobetxatu gabe zuzenean ahanzi egiten ditugun bizitzaren pasarte hutsalak. Hor nonbait gelditzen dira, ezerezean galduta, ordenagailuetan gorde gabeko artiboekin gertatzen den bezala. Eta hondar horrekin osatzen dugu gure bizitzaren ekuazioa: hondarra gero eta handiagoa, are gertuago atsekabea.

Batzuek 8 orduko lanean betezen dituzte egunero zaborraren minutuak; beste hainbatek berriz, etxean, lantokia lagatzen duenean. Bestela, hiperreko kutxa azkarreko ilara geldoetan ematen ditugu zain minutu horiek, edo igogailuan, bizilagunarekin uztartzeko iritzi

Zaramaren minutuak

epelen bila. Edonon azaltzen dira soberako minutuak: musika kendu eta ostatuak itxi ondorengo etxerako bide amaigabe mozketan, maitearekin eztabaidatu osteko isilune luzeetan, lagunaren bisitalditik bueltako errepide luzean...

Afaloetan zoriontsuenek soilik telebistari so pilatzen dituzte zakarrontzira bidali beharreko minutuak; nahigabeteuek, berriz, ohatzean; eta ohatzean ere segundo bakan batzuk aski izan daitezke mamia zabor bilakatzeko. Osasunazaleok era berezian ezagutzen ditugu orgasmoaren ataritik zuzenean frustraziora eramaten zaituzten luzapeneko hondar segundoak, hain justu aurreko igandean Athletici oparitu genizkion horiek.

Edonola ere, arazoa areagotu egiten da zaramaren

minutuak hilabete bihurtzen direnean. Izan ere, legealdiaren hondar epea besterik ez baita hango hauteskunde atari giroa, eta hemen jadanik gehiegi dira zaborrera bota beharreko dekretu eta inposaketa egunak. Bitartean, atzoko mezuak entzuten ditugu gaurko albistegiaren bloke politikoan, zaramaren minutuen artean desagertutako bake eta askatasun hitz eta hitzaldiak betiere.

Zaramaren minutu horiek birziklatzean omen datza zoriontasunaren sekretua. Zoriontsu izateko lan horretan maitearekin bizi izandako isilunea besarkada bihurtzen saiatuko naiz, bizilagunari elkarriketa sakonagoa eskainiko diot igogailuan. Politikarien birziklatze ahalmenaz, ordea, aspaldi galdu nuen esperantza, hauteskundeak hauteskunde.

Doneztebe •

Errekaren zilarrezko urteurrena

Aurten 25 urte bete ditu Malerrekako kirol elkarte bakarrak

Erreka da Malerreka bailarako kirol elkarte bakarra, eta aurten 25 urte bete ditu sortu zenetik. Urte osoan hainbat ekitaldi antolatzeke asmoa dute, baina betiko jarduerekin jarraitzeke asmoa agertu dute.



Errekak, Malerrekako kirol elkarte bakarrak, 25 urte bete ditu. Errekako atalik indartsuena eskubaloikoa da. • TTPI-TTAPA

ORAIN 25 URTE SORTU ZEN Erreka Kirol Elkartea, Malerrekako. Arlo horretan zegoen hutsa ikusirik, hainbat lagunek bultzatuta eratu zen, eta gaur egun bailarako kirol elkarte bakarra da. Bortzirietan zein Baztanen tradizio handiko kirol elkarteak badauden arren, Malerrekako Errekak bete zuen orain 25 urte zegoen hutsunea. Orduan hainbat kirol arlo landu ditu, baina gaur egun lau dira nagusiki jorratzen dituzten kirolak. Eskubaloia da guztietan nagusia, eta ibilbide honetan ere hala izan da. Seniorretan, jubenetan eta haurretan mutilen talde bana du, eta haur eta kadete mailetan neskena ere bai. Baztanen eta Bortzirietan ere eskubaloia inoiz landu izan bada ere, Erreka izan da eskualdeko talderik indartsuena beti, eta gaur egun hori da jarduerarik zabalduna. Urte osoan bertze kirol bat ere lan-

tzen dute, 25 urte hauetako azkeneko urteetan egituratu dena: Errekako mendi arloa. Mendi ibilaldiak eta txangoak antolatzen ditu sail horrek.

Ekitaldiak urte osoan

Garai batean saskibaloia zein txirrindularitza taldeak ere bazituen Errekak, baina gaur egun ezin izan die horiei eutsi, jende kopuru nahikorik ez zegoelako. Eskualde osoan gertatu den bezala, txirrindularitza Urtxintxa taldera mugatu da, eta bertan biltzen dira txirrinduzale guztiak, tartean Errekan ibilitakoak. Bi kirol horietaz gain, urtean bi txapelketa antolatzen dituzte, aurten aski erranguratsuak izanen direnak, 25. urteurrena dela eta. Pala txapelketa laster paratuko da abian, eta horretan par-

te hartzeko deia eginga dute dagoeneko. Zazpigarren txapelketa izanen da aurtengoa. Paleta-goma moduan jokatu da, eta bikoteek heldu den igandea birtarte izanen dute izena emateko astia. Txapelketa, hala ere, 20 bikotera mugatuko dute antolatzailerik, eta maiatzaren eta ekainean jokatu da. Aurtengo sariak bereziak izanen dira, urtemuga dela eta. Hala, lehen saria 50.000 pezetakoa izanen da, 30.000 pezetakoa bigarrena, eta 15.000 pezetakoa hirugarrena.

Baina saririk preziatuena areto futboleko txapelketako ira-

bazleek eramanen dute, ziur aski. Bederatzigarren txapelketa jokatu berri da, Errekak antolatua hau ere, eta bertako irabazlearentzat ezusteko polita gordea zuten: denboraldi amaieran, Espainiako Ohorezko Ligan jokatzen duen Irurtzango Xota areto futboleko taldea Donezteben ariko da irabazleekin eta txapelketan parte hartu duten jokalariekin egindako selekzio batekin. Gisa horretan ospatuko dute Malerrekako kirola zabaltzen azken 25 urteotan egindako lana.

→ Jon Abril

herri aldizkariak

Edurne Elizondo

Dabi Martxuetaren omenaldia

Urdiain eta Altsasuko udalek Dabi Martxuetaren Sasi gaixoak liburu argitaratu eman dute. Martxueta herriotako eskoletako maisu izan zen hainbat urtez, eta liburu horretan haurrentzako olerki, joko, ipuin eta beste bildu zituen. Berri hori jaso du Guaixe aldizkariak azken zenbakian: «Lagunarte, ikasle eta lankideen arteko aurkezpen hunkigarri eta beroa egin zioten Dabi Martxueta zenaren olerki, ipuin, asmakizun eta bertso jasotzen dituen liburuari. Liburuaren izenburua bertako ipuin

batzen izenburua da (Sasi gaixo baten historia); Dabi Martxuetak berak heriotzaren inguruan idatzitako ipuina da hori».

Martxuetaren inguruan mintzatu zen Iñaki Gorrotxategi Navarro Villoslada ikastetxe publikoko zuzendaria aurkezpenean, eta haren maisutza eta euskaltzaleasuna azpimarratu zituen: «Euskarra pixka bat sartzen hasi zenean erronkan sartu zen. Bere kezka haxe zen, haurrak nola euskaldun hezi, eta horretan aritu zen». Idazlearen arreba

Aitziber Martxuetak ere hitz egin zuen: «Eskola modu berezian bizi izan dugu beti, gure aita maisua zelako. Nebak pasio handiarekin kontatzen zizkidan egitasmo guztiak».

Altsasuko alkate Camino Mendiluze, bestalde, horrela mintzatu zen: «Dabi Martxuetarendako garrantzitsu ziren bi herriok omenaldia egin nahi izan diogu». Alkateak, halaber, Castillo Suarez eta Josema Leitzak Martxuetaren liburuari egin dizkioten zuzenketak eskertu zituen.



ur dai
aren
mintzoa

Xabier Larraburu

Plan bat daukat (IV)

Egun horretan UPNren otsaileko kongresura abiatuko garenak Euskararen Aldeko Solidarioetako sei mila kide izango gara. Zehatzago: sei mila kide eta trailer erraldoi bat. Anaitasunaren parean trailerra utzi eta polizien hesi beldurgarriaren aurrean gure militantzia baieztatzen duten karnetak atera eta, beraien harridurarako, barrura sartuko gara, oso modu zilegian. Barruan UPNko jauntxo eta buru orok abuztu aldean izandako militantziaren bikoizketa harrigarriaren zergatia ulertuko dute bat-batean eta larritu egingo dira eta dardarka hasiko zaizkie hortzak eta espantu batean kristoren infiltrazioa jasan dutela ulertuko dute eta bere «benetako» militanteen botoak gutxiengoan gelditu direla jabetuko dira, argiki, bote prontoan. Orduan «benetako» militanteak Iruñearen lau izkinetara bidaliko dituzte beren sendiko norbait ziztu bizian ekartzeko mandamenduarekin, tabernak miazteko aginduekin, squash eta paddle eremuak arakatzeko erreguearekin; eta horrela, akaso, handik ordubetera bi mila militante gehiago ekarriko dituzte, gure gehiengo Euskaldun eta Solidarioa izorratuko dituzten bi mila militante berri. Guk, bitartean, Anaitasuna kiroldegiko aulkietan eroso, Euskara plazara eta Bortian ahuzki moduko kantuak abesten emango dugu ordu hori, lasaitasun handiz. Orduan UPNko handimandibatek hitza hartu eta «se nos querían colar» edo horrelako zer edo zer botako du oholtzatik, eta beraien militanteek kristoren barreak eginen dituzte gure kontura eta bozketarekin hasiko direla esango du eta, nahiz eta gu gutxiengoan egon, oso lasai egongo gara zeren sakelako telefono baten bidez trailerrean dauden bost mila euskaldunei «zatozte!» esango diegu eta bost mila horiek etorriko dira eta gurekin batera hamaika mila izango dira eta bozketa guztietan garaile aterako. Egun horretan Miguel Sanzen lekuan Bixentiko bat jarriko dugu eta Gurrearen ordeiz Maitetxu bat eta horrela segituz piramidearen oineko azken harria arte dena aldatuko dugu. Egun zoragarria izango da, eta betiko horiek alderdia banatu eta ospa egin nahi izanez gero alde egin dezatela esango diegu edo, hobe, galoi eta domina guztiak errokit atereak eta inongo ohorerik gabe kanporatuko ditugu. Listo. ●

Euskaraz ahoratu eta idatzi beharrekoak

Iruñerrian euskaldun berriak gero eta gehiago diren heinean, euskararen kalitatea eta nafar «sortzeko» aukera eztabaidagai dira

GARBISUK IRUÑERRIKO EUSKARA HILOBIRA eraman zuela erran dugu, baina, egia-
ren errateko, «inoiz ez omen da Iruñerriko
euskara homogeneorik izan». Halaxe esplikatu
zuen dialektologian aditu Iñaki Caminok,
AEK-k Korrika Kulturalaren karietara antolatu-
turiko hitzaldi sortan.

Hasteko, zail samar egiten da Iruñerria be-
ra zer den zehaztea. Demagun Eguesibar,
Aranguren, Elortzibar, Olloibar, Etxauri, bost
zendeak (Zizur, Antsoain, Galar, Itza eta Ol-
tza), Xulapain eta Ezkabarte direla Iruñerria,
Iruñea eta ondoko herriak barne, noski. Bada,
horietan guzietan euskara bera hitz egin zenik
ezin da baieztatu, Caminoren aburuz.

«Iruñea Euskal Herriko erdigunean dago»,
azaldu zuen Caminok. «Eta hortik, erdi-erdi-
tik iragaten da eremu lektal nabarmen bi ba-
natzen dituen marra hipotetikoak. Ezkerrean
daude, esate baterako, Oltza eta Goñerri, eta
horien hizkerak Gipuzkoan, Leitzan eta Saka-
nan egiten denarekin du zerikusia. Esquinean
Elkano eta Eguesibar daude, eta horien hizke-
rak Euskal Herriko ekialdearekin du lotura». Egun,
marra hipotetiko hori Esan-Erran irra-
tiak hartzen duen eskualdearen erditik pasa-
tzen da, eta hortik datorkio izena irratiori.

Caminoren iritziz, Iruñerria gutienez lau
eremutako hizkeren artean banatuko zen.
«Esate baterako, badira Iruñerriko mendeaba-
la, Izarbeibar, Sakana eta Araba batzen dituz-
ten hitzak Nafarroa Garaiko beste lekuetan,
ekialdean, aurkitzen ez direnak. Eta Iruñerri-
ko ekialdeko guneak loturik agertzen zaizkigu
Nafarroako ekialdeko eta Ipar Euskal Herriko
hizkerekin».

Euskara pobrea, erregistrorik gabekoa

Iruñerriko euskararik ez dela jakin eta gero,
Iruñerrian zer-nolako euskara erabili behar-
ko litzatekeen aztertu zuten AEK-ko jardun-

Esteban Garbisu, ustez
Iruñerriko azken euskaldun
zaharra zena, 1992ko udan
zendu zen. Garbisu Xulapaingo
Beorburu herrian jaioa zen eta,
hiltzean, berarekin eraman
zuen Iruñerriko euskara. Egun
milaka euskaldun daude
Iruñerrian eta gaztetxoenen
artean matrikulazioen herenak
D ereduak dira. Euskararen
kalitatea, baina, ezbaian dago,
eta anitzek uste du eskoletako
hizkera estandarra nafarrerara
kutsuz jantzi behar dela.

naldietan. Kiko Urmetak, euskalduntze-alfa-
betatze elkarteko didaktika arduradunak,
euskara «gaixorik» zegoela onartu zuen, ho-
rixer baita gaitza sendatzeko lehen urratsa.

Kike Diez de Ultzurrunek, Euskalerria irra-
tiko esatariak, esperientziatik hitz egin zuen,
eta agerian utzi zuen euskararen gaixotasu-
na: «Guk ttikitan, euskarazko eskolara joan
arren, erdaraz egiten genuen beti, besteek ez
ulertzeko ez bazen. Erdara zen gure hizkun-
tza bakarra, eta erraztasun ikaragarria ge-
nuen horretan. Erregistro aldaketa egiteko
gai ginen, etxean, lagunartean edo osaba-
izebekin hitz egiteko. Erregistro aldaketa ho-
rrek berebiziko garrantzia du, eta euskaraz
ez zaigu iritsi. Ikastetxeetatik denak atera-

*Adituen ustez, Iruñerriko
lurretan inoiz ez da
euskara homogeneorik
hitz egin. Ezkerreko
lurretako hizkerak
Gipuzkoa, Leitzeta eta
Sakanakoekin zuten
lotura, eta eskuineko
hizkerak Euskal Herriko
ekialdekoen multzokoak
ziren gehiago*

tzen dira, dakigun bezala, oso hizkera pobre-
arekin. Eta Hizkuntza Eskola ikastoletako
jendeaz beterik dago».

Planifikazio falta irakaskuntzan

Miguel Angel Asiainek, Irakasleen Birziklatze
Ikastegiko langileak, erran zuen irakasleen
prestakuntzan «hasmentatik planifikazio falta
izugarria» egon dela. «Eskolako irakasleei
ez zaie kalitate eredurik exijitu. Norberaren
esku gelditzen zen hori hobetzea. Irakasleak
non eta nola ikasi, halako euskara erakusten
ziren haurrei, eta, horregatik askok Marteko
euskara ikasi dute. Gainera, orain arte soilik
hizkuntza formala landu da, eta informala
lantzea eginkizunaren artean gelditu da».

Horren harira, Caminok 16 urte zitueneko
anekdota bat kontatu zuen: «Amodioa ga-
rrantzi handiko kontua da mutiko batentzat.
Gogoan dut halako egoera batean izan nin-
tzela eta, noski, saioa euskaraz egin behar
izan nuen. Eta zera bota nion nire gustukoa
zenari: 'Konturatu naiz gustatzen zatzaizkida-
la'. Ikasia nuen aditz hori eta erabili behar zela
pentsatu nuen. Gero etorri zitzaizkidan lagu-
nak esanez ea nola arraio izan nintekeen ho-
rren harroa. Izan ere, neskak ez zuen ulertu
bera nire gogokoa zela, baizik eta nik uste
nuela ni haren gogoko nintzela. Orduan kon-
turatu nintzen nola edo hala euskara natura-
lagoa erabili behar izan nuela arrakasta izate-
ko».

*Iruñerria moduko lekuetan
zaila da euskara batua
bertako euskararekin
aberastea, bertakoa
galdurik baitago.
Batzuek diote erdua
Iruñetik goitiko
euskaretatik hartu behar
dela; besteek, Sakanako
indar demografikoa ezin
bartzertzen ahal dela diote*

Euskaldun berriak, intulizloz nafarrerarantz

Ikasiriko euskara batua naturalagoa bilaka-
tzeko euskalkietara jotzen ari da urteotan.
Jatorrizko euskara bizirik dagoen lekuetan
egitea ez da zaila. Bai, ordea, esaterako, Iru-
ñerrian. Bertako euskaldun berriek ez dakite
nora jo, batetik, ez delako jaio oraindik nafa-
rrera zer den garbiki azalduko duen pertso-
nari, eta, bestetik, «Iruñerriko euskararik»
inoiz izan ez delako. Asiainek Iruñean erabili
beharreko euskara eraikitzeke Nafarroa ipa-
rraldeko multzoa oinarri hartzea proposatu
zuen. Caminok onartu zuen aukera egokia
izaten ahal zela Iruñetik goiti dauden hizke-
rak hartzea (Ultzama, Erro, Leitzeta, Baztan

eta Basaburuakoa) eskualdeko batua sortze-
ko, baina, ohartarazi zuen Sakanako indar
demografikoa ezin ahazten ahal dela.

Kontua argitzen den bitartean, euren ba-
tua pobrea «nafarreraz» jantzi nahi duten
euskaldun berri asko intuizioz ari dira Gi-
puzkoako maisuek irakatsiriko esan, izan-
go, niretzat eta amona horiek erran, izanen,
niretako eta amatxi horienegatik ordezka-
tzen. Eta euskal senik gabeko intuizioz ari
direnez, noraezean dabilta, sekulakoak
ahoratzen eta idazten anitzetan. Askok «na-
farreraren» gida liburua eskertuko lukete.
Idatziko duen ausartia falta da.

→ Asier Azpilikueta

Aingeru Epaltza



«Irakaskuntzako zenbaitzuek ez dute oso ongi ulertu batua zer den»

AINGERU EPALTZA IDAZLEA NAFARROAKO IKASTOLEN
Elkarteko lehendakaria eta Nafarroako Gobernu-
ko itzultzaile taldeko kidea dugu, bultzatu beharreko hiz-
kuntza ereduaz hitz egiteko pertsona aproposa beraz.

■ **Iruñerriko edota Nafarroa osoko administra-
zio testuetarako zein irakaskuntzarako nola-
baiteko nafarrerara bultzatu beharko litzateke-
ela uste duzu?**

Bultzatu beharko litzateke, bai, hemengo hiz-
keraren ezaugarri batzuk izanen litzuzkeen erdua,
eta, gainera, oso gauza naturala izan beharko lu-

ke. Horrek ez lioke batasunari inolako kalterik egi-
nen, alderantziz baizik. Corpus komunitik edanda
ere, hemengo aukerak hobetsi beharko lirateke.
gogo esportatzaile batekin gainera; hemengo auke-
rak hemendik kanpo ere baliagarriak izaten ahal
baitira. Alde horretatik, Nafarroako Gobernu-
ko Itzulpen Unitatean egiten den lanak eredurako balio
du.

■ **Nondik edan beharko luke nafarrerara horrek?**
Baztandik, Sakanatik...?

Ez dakit nora jo beharko genukeen. Ez da hain erra-

la. Baina, dena dela, ezaugarri komun batzuk har dai-
nezke, Nafarroa euskaldun osoa hartuko ez badute ere
ehiñean errepikatzen direnak. Erabiltzaile bako-
iak igual bere ukitua eman dezake. Adostasunerako
eremu zabala dago.

■ **Ikastolen elkartearen nafarreraren inguruko
zer edo zer egin duzue?**

Elkartearen ez dugu sekula horrelakorik bultzatu eta
nik uste dut horren beharra badela. Ez dakit zergatik,
irakaskuntza izaten da beti azkena euskalgintzan
bultzatzen korronteez jabetzen. Eta egun badago alde

nabarmena, eredu linguistikoa dagokionez, euskal-
gintzako eredu nagusien eta irakaskuntzan finkaturik
dagoenaren artean, Nafarroan bereziki. Normala
ikusten dut irakaskuntzan eredu berdintzailea ezar-
tzea, baina gutieneko malgutasuna behar da. Baina
irakasleen artean, Iruñerrian batez ere, hizkuntza
eredu aldetik zurruntasun ikaragarria dago. Kontua
da Iruñerriko ikastetxeetan erabiltzen den eredu ber-
dintzaile hori euskaldun ez direnendako pentsatua
dela, mendialdetik datozen haur euskaldunak kon-
tuan hartu gabe. Eta batzuetan izaten da etxetik era-

maten den euskara hori ezabatzeko edo kontuan ez
hartzeko joera kezagarria.

■ **Akaso zenbaitzuek ez dute oraino ulertu
batua zer den.**

Bai. Irakaskuntzako zenbaitzuek ez dute hori oso
ongi ulertu. Eta, oraindik, gipuzkoar eredu bat erabi-
tzen eta bultzatzen da, batua interpretazio gipuz-
koarra. Badirudi hemengo irakasle batzuk ez direla
deusetaz jabetu azken urteetan. Eta oso kasu minga-
rriak ikusi izan ditut: institutu batean irakasleak idaz-
lan bat agindu zuen eta Lesakako ikastolatik zetorren
haur bati izanen, bertze eta gisakoak zuzendu zizkion,
txartzat jo eta idazlana suspenditu; eta asteburuan zer
egin zuen kontatzen hasi zen haur bat ikastola batean
eta erran zuen amatxi-ren etxera joana zela. Eta ira-
kasleak amona erantzun zion. Ikasleak, berriz, ama-
txi. Eta irakasleak, ez, ez, amona. Halako gauzak ger-
tatzen dira oraindik ikastoletan.

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Eltzaburuko eskola eraikitze baldintzak

Ultzamako herri batean eskola berria eraikitze baldintzak jasotzen dituen XVIII. mendeko euskal testu baten berri eman izan digute arestian; idazkia laburra bada ere, interesekoa biziki.



Ez dukegu geurea aparteko-tzat jotzeko arrazoi berezirik, baina egia onartu beharra dago, Nafarroan gertatzen diren zenbait ez direla sobera taxuzko, are gutxiago onargarri. Itokinak edonon gerta daitezkeen istripuak dirateke, baita ur ihesak ere; suteek akabatu omen dute berreskurazekin ziren paper askorekin, eta hai-zeak barreiatu errautsek ez dizkigute, inolaz ere, errausturiko hizkiak itzulikatu. Beti izan dira halakoak, baina geure Nafarroa honetan berriki gertatu dena, tamalez, ez bide da sobe-ra taxuzko, zilegi zein onargarri. Ondoko lokalean egiten ari ziren obrek izan zuten errua. Horretan bai espezialista gu, errudunak bilatze lanetan, ardura gure ez egite aldera. Tumatxa! Baina orain, nagusia txiki bezain zaharkiturik geratu zaigunean, ur ihes zozo batek protokoloetakoa itxi digu ez dakigu noiz arte. Artxiboaz ari gara, naski, zertaz bestenaz.

Eskerrak satorrak lana eginga bazuen, eta berandu baino lehen geure eskuetaratut zigun fotokopia. Pollita gero, duela 205 urteko euskarazko testu ez erlijioso! Ospatzeko modukoa betiere. Gora hi Fidel laguna, eta hamaika esker eginiko oparitxoarengatik! Bihoa segituan guzien gozagarri, honen berri eta puska ez bada ere.

Protokoloko artxiboan topaturiko testua, eta beronen azalean agertzen den bezala, Eltzaburun eraiki beharreko maisuaren etxeko lanen baldintzak ditugu, zurginak zein harginak betebeharreko baldintzak hain zuzen ere. Baldintzok erdaraz eta euskaraz agertzen dira, ez ordea eskritura osoa. Honek zurginaren zein harginaren elebakartasu-

na erakutsiko liguke eskuarki, aipagarria dena, izan ere, hargina Oltza aldeko Asiaingoa baitzen, Ultzama baino lehen-txeago erdaldunduriko zonaldea dena. Eltzaburuko eskola-fundazioa Juan Jose Ihaben eta Martin Erbiti eltzaburutarrek sortu zuten 1789ko irailaren 16an 20.300 pezetako kapital batekin, aipatu Eltzaburu, Auza, Ilarregi eta Juarbeko haurrentzako. Eskola eraikitze-ko lau herrien ordezkariak Asiaingo Juan Joseph Etxarri-rengana jo zuten, maestro agri-mensor edo hargina zena. Aroztegiko lanak Eltsoko Juan Antonio Zubeldia zurginari eman zizkioten. Kontu hauen guztien zehaztasunak Markos Larunbe notarioak jaso zituen eskritura batean, Auzan 1796ko apirilaren 1ean sinatu-ta.

Agiriak hiru zati ditu, erdarazko eskritura bera, zurginak zein harginak bete beharreko

baldintzak euskaraz, eta beronen erdarazko itzulpena. Esan-gabe doa testu honen garrantziaren handia. Apurka-apurka ilunpeetatik ateratzen diren euskarazko testuak geroz eta gehiago badira ere, arras gutxi dira gai erlijiosoak ukitzen ez dituztenak. Agiri honen kasuan testua aterbetzen duen egoera, hots, enkante edo kandela bera, zein zurgintza eta hargin-tzaren gaineko kontu teknikeoz izkiriaturik egotea bereziki era-kargarri gerta dakizkiguke. Bestalde ere, testu hau Ultza-mako corpus idatziaurren urritasuna neurri batean artatzera le-torke. Beste hamaika etorriko balira! Lagin modura, hona he-men harginak bete beharreko baldintzen pasartea.

«Lentabico Arguinceritocacenzaion Candelan obra au, artubiarduenac, izan biar-duen obligacioa: Lenbicicoriq: Lau Yllabetez alciñeti q obran asi baño lenago, biardu Morte-roa ongui oraturic, ona, aran-zeleac aguincenduen bezala, ure eta Area, Arguineq biardu bere Carguen artu. Bigarrena: Arrie ateracea, Quisue eguitea, eta Arrien Carreto, eta

Zimendueq, Aranzelaq manacenduen bezala ateracea, da Modu ontan, Zimendue biardu idiqui, Lau onian barrena, eta Yru oin, eta erdy Zabal (...) Ontas landara Echeme-nie eta Sucaldea beartu Losat-cea Zerracea eta Ymbuciela Saiesetic bi arri Aranzelaq aguincen duen bezala, Baeta-re beartio Leioetan paratu Burnic, Artean Conforme, obligacio ontaraco ematen-zaio Oguey Erreal Eztatuco precioa ontan paracenda Can-dela, Condicioarequi tanto bacoiza Yzanenda sueldoza eztacuco, tanto erdie Bederaci maravedy».



panpilonia zirkus

Pello Argiñarena



Zaindari urdin bakoitzak hamar bat isun jartzen ditu egunero. • MIKEL SAIZ

Asfalto urdinak

BERE ZAPATAK EZ DIRA DANTZA egiteko, baina sekula ez dira geldirik egoten. Ramonek bosgarren parearekin estreinatu du lanean hasi zenetik. «Kalitate txarrekoak dira, bide luzea egiteko desosoak, eta, batik bat, oso hotzak». Aurretik ere, beroki egokiak lortu arte hamaika aldiz kexatu behar izan zuen beste 110 lankideekin batera. Udaltzainek eramaten dutenaren oso antzekoa da Dornier enpresako langileen uniforme urdina.

Iruñeko Udalak asfaltoan margotu duen marra urdinari begira egoten dira egun osoan. Marra ikusita, mar-marra nagusi herritarren ahotan. «Gu ere oso haserre gaude Udalarekin. Bigarren ilaran utzitako autoei, zamalanei eta oinezko-entzako bideei erreparatzea ez da gure betebeharra. Ordaindu ez duten autoen segimendua egiteko soilik kontratatu gintuzten».

Ramon Dornier enpresarekin ere haserre dago, langileak kate motzean loturik dauzkate-lako. «Egunero ikuskatzaileen bisita jasotzen dugu, lana be-har bezala betetzen ari ote ga-ren ikusteko. Ikaragarria da. Gainera, lanordu gehiegi egi-ten ditugu, eta ez dugu atsedeen tarterik».

Anbulantziak deitzea istripu-ren bat gertatzen denean, suhil-tzaileak abisatzea norbaitek gil-tzak etxe barruan ahantzita uz-ten dituen, galdutako txakur-ak edo haurrak bilatzen la-

guntzea. «Nahiz eta horrelako-ak ere ez diren gure ardurak, herritarrei laguntzeko prest gaude edonoz eta edonon. Lan hau gustura egiten dugu bene-tan». Dena den, iruindar gehie-nek ez dituzte begi onez ikusten langile horiek. Aparkatzeko le-kurik ez eta, gainera, toki libre bat aurkituz gero ordu erdi ba-koitzeko 60 pezeta ordaindu beharra dago. Bestela, lau mila durokoa da isuna. «Batez beste, bakoitzak hamar isun inguru jartzen ditu egunero. Arazo gehienak goizeko eta arratsal-deko azken orduetan gertatzen dira eta, batez ere, gidari gazte-ekin».

Duela bi urte sortu zen Iruñe-an zerbitzu hau. Dena den, oraindik ere ez da batera erraza erdigunean autoa aparkatzea. «Arazo honi aurre egiteko, aparkalekuak eraikitzea ezin-bestekoa da. Ez dakit lur azpi-koak izan beharko luketen, eta zerbait kobratu beharko litzate-keen. Jakin badakit, ordea, oso mantso aztertu behar dela non eta nola egin. Gazteluko plaza-ko proiektua astakeria hutsa iruditzen zait».

Aparkatze Mugatuko Ere-muak ordutegi mugatua du: 08:30etik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00era dago in-darrean; eta eremu mugatua: Iruñeko I. eta II. zabalgunak. Mugarik gabekoak Iruñeko Udalaren irabaziak dira zerbi-tzu berria abian jarri zenetik duela bi urte. Diruaren kolorea urdina da bertan.

Ziria

• Motxorrosolo •

Hurrengo printzea

AZTORATZEN HASIAK DIRA. GAZTELU PLAZAN, 30EKO HAMAR-kadaren hasieran, ekintza lazgarri baten protagonista izan zena dugu Vianako Printze izateko hautagaia. Erreketen buruzagia izan zenak esana du, egun, helburuen erdieste-ko ez dela bortizkeriarik baliatu behar; baieztapenak ez du horren erabilera arbuaitzen, unearen arioren egokia den ala ez pausatzen digu. Egungoen aldean, garbiki mintzo zaigu.

Gontzal Agote

‘NABARRA’ ALDIZKARIKO KOORDINATZAILEA

«Nafarroaren alderdi euskaldunaren ispilu izan nahi dugu»

Euskarazko argitalpen berri bat kalean da dagoeneko: Nabarra hilabetekaria, nafar euskaldunentzako aldizkaria. Gai sozialak eta kulturaren esparrukoak landuko ditu hilabetero, Nafarroaren alderdi euskaldunaren ispili izateko asmoz.

AZKEN ASTEAK LAN ETA LAN eman ditu Nabarra aldizkari-ko koordinatzaile Gontzal Agote kazetari donostiarrak, hilabetekariari azken ukituak eman eta kaleratu ahal izateko. Lehen zenbakia bukatu ondoren, Nabarra-ren asmoz mintzatu da NAFARKARIArekin.

■ Nondik dator Nabarra, nola sortu da proiektu hori?

Nabarrerria enpresaren proiektu bat da. Argitalpenak kudeatzeko enpresa bat da; proiektuak baditu bi adar: bate-tik, Iruñerriko azpiegitura komu-nikatibo bat sortzea, eta arlo horretan lantzen ari gara orain auzoetako aldizkariak. Aspaldi hasi ginen Txantreako Txantrean Auzolan aldizkariarekin, hiru urte ditu, hilabetero mantendu da, eta orain hori profesionalizatu da. Txantreakoa eta Alde Zaharreko Aldapa ditugu orain, baina beste auzo eta herrietan antzekoak sortzea nahiko genuke. Eta bestetik, gure asmoa da euskal komunikabideak ahal den neurrian laguntzea edo bultzatzea, eta hor kokatuko litzateke Nabarra aldizkaria.

■ Zergatik Nabarra?

Nafarroatik sortua delako eta, nolabait ere, Nafarroaren alderdi euskaldunaren ispilu edo isla izan nahi duelako. Normalean Nabarra entzuten dugunean, lo-tzen dugu alderdi atzerakoi bat-zuekin, eta kontua da azaltzea Nabarrak, b-z idatzita, islatzen duela Nafarroak edo Nabarrak duen erro edo sustrai euskalduna. Hitz berreskuratu nahi izan dugu, aldi berean. Nabarrak esan nahi du ere kolore anitze-

koa dela eta horrekin jokatu nahi izan dugu, bertako euskaldunak ere kolore anitzekoak direlako, eta guk aniztasun horren ispilu izan nahi dugu. Ez bakarrik aniztasun ideologiko edo soziala, baizik eta zaletasunetan ere. Ematen du euskaldun guztiok izan behar dugula bertsozaleak, eta ez da egia.

■ Nolabaiteko hutsunea betetzeko sortu da aldizkaria?

Bai. Nafarroan euskaldunak izan bagara, eta ari gara lanean, euskaldun gisa bizitzeko hautua egin dugulako. Kontua da oso sakabanatuta gabiltzala, ez dugu elkarren arteko berririk, eta badago hutsune bat informazioa edo iritziak trukatze-ko orduan. Hutsune hori bete nahi dugu. Bestalde, badira bailaraz bailara-ko herri aldizkariak eta haiek informazio lokala jorratzen dute. Guk ez dugu halako asmorik, baizik eta eman nahi dugu ikuspegi orokor bat. Nafarroa izanen da gure ardatz nagusia, baina ez dugu ahaztuko Euskal Herriaren osotasuna.

■ Zer-nolako gaiak jorratuko dituzue?

Erabaki genuen aldizkari soziala eta kulturala izatea. Politika alde batera utzi dugu, euskaldun guztion edo ahalik eta gehien topagunea izan nahi duelako aldizkariak. Egiturari dagokionez, bi atal nagusi izanen ditu. Lehengo zatia izanen da soziala, iritzirako tartearrekin, hiru erreportaiarekin, elkarrizketa batekin eta hainbat komiki eta bestelako elementurekin. Bigarren zatia da kulturalagoa, eta jorratuko ditugu literatura, musika, zinema,

bertsolaritza, aisialdia, komunikabideak. Euskarak ere izanen du bere atala. Agenda izanen dugu, eta beste.

■ Euskaldun guztientzat da, beraz?

Bai, aldizkari zabala izanen da, eta gaien aldetik ere saiatuko gara aniztasunari eusten. Gustatuko litzaiguke gazteekin lan berezia egitea ere. Ez da haiei bereziki zuzendutako aldizkaria, baina diseinu aldetik eta freskotasuna eman nahi diogu.


■ Dekretua gora eta behera, bada girorik zuena bezalako aldizkaria plazaratzeko?

Egon beharko luke. Gu hasi ginen aldizkaria prestatzen duela hainbat hilabete, konturatu ginen gure aldeko kanpaina egiten ari zirela, gu oraindik hasi gabe. Euskararen kontrako neurri bakoitzak halako proiektu bat martxan jartzeko beste arrazoi bat ematen zigun. Ez dugu hau erantzun moduan planteatzen. Euskaldunok gure bidetik jarraitu behar dugu.

■ Euskarari dagokionez, eztaibadarik izan al duzue erabili beharreko euskarari buruz?

Eztabaida bizia izan da. Jende askok esan digu nafarreraz egin beharko genuela, baina, zer da nafarrera? Ari gara lanean horren inguruan, baina guk batuaren aldeko apustua egin dugu. Baztaren modu batez hitz egin ahal da, Sakanan beste modu batez; beraz, zein erabili behar dugu? Gai korapilatsua da eta zaindu behar dugu, baina jendeak konturatu behar du ez dela bakarrik bailara baterako edo besterako aldizkaria. Ez da ulergarritasun kontua, koherentzia kontua baizik.

—Eduarne Elizondo




● JOXE LACALLE

Nabarra aldizkari-ko koordinatzaile Gontzal Agotek Iruñea du bizileku, baina, Donostia jaioterri. Nafarroan, Egin Irratiko esatari izan zen itxi zuten arte, eta, ondoren, Gara egunkarian aritu zen erredaktore kultura gaietan.

Nabarra aldizkarian Gara-ko egunerokotasunaren menpekotasuna atzean utzi du Agotek, baina lehendabiziko zenbakia prestatzea ez dela batere lan erraza izan aitortu du. «Lan ezberdina da, epeak luzeagoak direlako, baina gauza asko dago kontrolatzeko», azaldu du.

Nabarra hilero izanen da kioskoetan, 52 orrialderekin, oraingo, eta urte osorako harpidetza ere egin ahal izanen da, 5.000 pezetaren truke. 300 harpidetza egin dituzte jada.



Nafar Kronika

Aitor Arotzena

Bertsolari txapelketa eta kartzelako gaia

A mets artean —eta Silveirak egindako amets gaiztoen artean— eraman zuen igandean Nafarroako Bertsolarien txapelketa Amets Arzallusek Hendaia aldera. Kartzelako gaiak eman zien amets egiteko aukera, eta aste horretan berean Bortzirietako dozena erdi bat lagunek komisaria eta kartzelatan bizi izandako amets gaiztoa buruan izan zuten finalistetako anitzek. Preso dauden bortziritarrak gogorarazi zituen hasierako agurrean txapeldunorde izan zen Estitxuk, eta Darocan eta Soto del Realen aditzeko moduko txaloak eskatu zituen azkenekoan. Eraman duten Ainara eta desagerrarazi duten Beñat flakoa gogoan izan zituen Silveirak, baita bere saria jaso zuenean ere. Aurtengo ezusteko atsegina izan den Joxe Juan Zubietak Etxabek ere Saski Berrin puntutaka aritzeko kide izan zituen lagunak gogoratu zituen. “Urralburu izan da kartzelan sartua” puntuari, “seguru ez dela izan hau torturatua”, akautu zuen finaleko emakume bakarrak. Ez da harritzekoa, beraz, bertso eta bertso artean, edo epaimahaiaren puntuazioa batzen zen bitartean, euskal presoak Euskal Herriratzaren aldeko oihuak aditzea Eztegar pilotalekuan. Gipuzkoako egunkari handi bateko kronistak mitin itxura hartu zion saioari, baina bertsolaritzak dohain bat baldin badu, hori errealtateari erantzutea eta unean uneko arazoei eta jartzen zaizkion puntuei poesia jartzea izaten da. Eta horixe gertatu zen igandean Beran. Finalistetako anitzek desagertutako lagunekin zuten burua eta burutik ahoz, hitzetik hortzera, haien omenezko bertsoak atera ziren. Orokorrean gaurkotasan haundiko gaiak izan ziren finalean —gaijartzaileek barkatuko didate, baina oparitutako urdaiazpikoak ez zuen handiegirik, aheriak jotako zerri batena ez bazen behinik behin— eta gaurkotasuneko gaia zen atxilotu, torturatu, espetxeratu eta ihes egindakoena.

Amets Arzallus txapeldun handiak erakutsi zuen bezalaxe, kartzela bera —eta komisariak, torturak, ihes egindakoak...— izaten ahal baita kartzelako gaia. Batzuei mitina iruditu arren.

gure aukerak

MUSIKA

- **Iruñea:** Igandean Haur Kantari Txapelketako finala egingen dute Gaiarre antzokian, 11:00etan. 23 talde, bikote eta bakarlarik hartuko dute parte; denetara, 120 haur eta 40 musika laguntzaile izanen dira.
- **Iruñea:** Fear Factory taldea, One Minute Silence eta Earthone 9 taldeekin batera, Anaitasuna kiroldegian izanen da igandean, 20:30etik aurrera.

KORRIKA KULTURALA

- **Zizur Nagusia:** Gaur, Korrika jaia. 16:00etan, Korrika Ttikia udaletxetik pista estalira. 16:30ean, Detraka taldearen Trikimailu express haurrentzako jaialdia, pista estalian. 20:00etan, kontzertua El Konde Rata, El Trono de Judas eta Garrasika taldeekin, gaztetxean.
- **Zizur Nagusia:** Bihar, Korrikari harrera. 11:00etan, 8 eta 12 urte bitartekoentzako ginkana kultur etxearen aurrean. 11:30ean, herri kirolak, atletismoa, futbola, pilota..., kultur etxearen aurrean. 13:00etan, karrikadantza zarpantzar, txaranga, gaitari eta txistulariekin, kultur etxetik abiatuta. 14:00etan, bazkari autogestionatua kontzeju-etxe zaharrean, eta Korrika iritsi arte, trikitilariak.
- **Berriozar:** Bihar, Korrikari harrera. Goizean, kalejira buruhandi eta erraldoiekin, euskara erakusketa, Korriketako bideo erakustaldia, argazki erakusketa, haur jolasak eta herri kirol lehiaketa, Eguzki plazan. Eguerdian, paella jatea eta jolasak.
- **Bera:** Bihar, kontzertua. Ruper Ordorika eta Petti. 22:00etan, kultur etxean.

BERTSOLARIAK

- **Barañain:** Manolo Arozena, Peñagarikano, Xabier Amuriza eta Sebastian Lizaso udaletxeko aretoan izanen dira gaur 20:00etan.

HITZALDIK

- **Iruñea:** Jon Arretxe idazle eta abenturazaleak Zazpi kolore, munduko koloreak bere azken lana gaur aurkeztuko du, 19:30ean, Alegria de Iruña peñan (Jarauta, 61-63).

ZINEMA

- **Tafalla:** Asteazkenean eta ostegunean Ametsen lapurra

marrazki bizidunetako filma emanen dute arratzaldeko 18:00etan, Cinema Españolen.

ANTZERKIA

- **Iruñea:** Aitor Txarterinaren Zenbakiak ala eleak haurrentzako lana taularatuko dute bihar (12:00 eta 18:30) eta etzi (18:30), Nafarroako Antzerki Eskolan.

ERAKUSKETAK

- **Iruñea:** Sanferminetan gertatua euskarazko komiki lehiaketako erakusketa hilaren 19a arte izanen da ikusgai Alegria de Iruña peñan.

IKASTAROAK

- **Iruñea:** Karrikirik eta Arturo Campion euskaltegiak Itzulpengintza ikastaroa antolatu dute; apirilaren 26an, eta maiatzaren 3an, 10ean eta 27an; 17:00etatik 20:00etara. Izena asteazkena baino lehen eman behar da, Karrikirin (Xabier, 2).

BESTELAKOAK

- **Iruñea:** Bihar, ohi denez, Arkakusoen Azoka Ttikia egingen dute, goizeko hamarretan hasita, San Jose plazan. Bertan antigoaleko eta bigarren eskuko objektuak saldu edo trukatzeko ahal dira.

JOXE LACALLE



Pilota-telefonoa

Euskaldunak txalaparta bidez komunikatzen zireneko garaia testu liburu bakan batzuetan daude ahanztirik. Pilota herri kirola zeneko garaia ere aspaldiko kontua da, akaso, herria bera aldatu egin delako. Pilota ikuskizun mediatiko bilakatu dugu. Pilotariak pilota zein tako berberak erabiltzen dituzte oraindik, eta 22. tantora iristen lehena da garailea. Baina publizitateak, profesionalizazioak, enpresek, telebistek... pilota aldatu egin dute, onerako zein txarrerako. Eta pilotariak pilota eta sakelako telefonoa lastertasun bertsuaz erabiltzeko gai dira, eskuetan takoak izan arren. Dena dela, parabolikoen gisako eskuak izan ditzake Asier Olaizolak, edota telefono uhinak baino lasterrago ateratzen ahal da pilota haren eskutik; baina horrek ez dio partidak irabazten lagunduko. Txalapartarekin entrenatu beharko du hurrengoan.